

Beste hamabi eleberri eta hamar maika poema liburu eman zituen argitara, baina *The Town and the City* (Herria eta hiria) izeneko eleberria izan zen denetan lehena, 1950ean. Adituen arabera, gerora landutakoa baino askoz ere estilo konbentzionalagoa darabil bertan, Thomas Wolfe miretsiaren eraginpean. Paradoxikoki, ordea, hil zenetik ia 40 urtera kaleratu zuten idazleak idatzitako lehen eleberria: *The Sea Is My Brother* (Itsasoa anaia dut) izeneko, Kerouacek 1942an idatzia.

Frantseseko lanak

Sasoitsuan merkataritza ontzidian egindako soldadu garaia zuen oinarri nobelak. Eskuizkribu hura berreskuratu, eta 2010ean eman zuten argitara. Eta, hil zenez geroztik, tantakantaka joan dira bestelako testu argitaragabeak, edizio bereziak eta eskutitz trukeak azaltzen. 2016an eman zituzten argitara, esaterako, gaztaroan frantses idatzitakoak.

Bizitza eta literatura egarri horrekin ere, eusten irudikatu zuen maisutzat Ginsberg. Haikue-tan. Laburrean ere 'gartzen baita emaria. «Telegramarik ez gaur/ hosto erori/ gehiago bakarrik».

Zazpiko bilduma

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Album ilustratu hau bi eskutara idatzitako bilduma baten lehen zenbakia da. Bildumaren zazpi zenbakiak kalean dira, *Rotia eta Rensu* izenpean.

Lehen lan honetan herensugeen iragana eta oraina aurkezten zaizkigu. Esaten zaigunez, garai batean lurbira osoan arruntak ziren herensugeak, baina halako batean gizakiak beldur hartu zien, eta ia desagertzearaino akabatu zituen. Bakarrak iraun zuen bizirik: Rensuk. Liburuaren amaiera aldera aurkezten zaigun izen bitxiko neskato protagonista Rotia da, arbola baten puntatik izarrei begira ari zela, Rensurekin topatu dena.

Titulu bakoitzak mezu berezitu bat adierazten du: lehenak aurkezpenak; bigarrenak neskatoa

herensugearekin babestuta dagoela; hirugarrenak emozioak adierazteko beharra; laugarrenak hizkuntza eta kultura ugaritasuna; bosgarrenak haserrea eta berradiskidetzea; seigarrenak adiskidetasun bahitzaileak saihestea; zazpigarrenak enpatia eta zintzotasuna.

Irudiak ordenagailu bidez egindakoak dira, oinarritzko formak erabiliz, kolore biziko paleta oso zabalarekin, irudi eta konposizio ulerterrazak eskainiz.



'Rensu, Rotiaren lagun berria'

Idazleak: Bakarne Atxukarro eta Izaskun Zubialde. **Ilustratzailea:** Raquel Samitier. **Argitaletxea:** Erein.

Buru askea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tapa gogorreko liburua da, tamaina estandarrekoa (21x17 cm) eta 36 orrialdekoa.

Ipuina da, pertsona errealak eta hegazti basatiak agertzen dituen, ezohiko interakzioan.

Istorio aldarrikatzailea da, haurtzaro zoriontsua jomuga duena, baita giza kondizio buruaskeagoa ere. Asmoa gauzatzeko *txoriburu* adjektiboaren esanahiarekin jolasten dute.

Protagonista Simona da, 8 urteko neskato nekazina. Bere ezau-garririk bitxiena burua txoriz bete izatea da. Ez nolana, ordea: benetako txoriak ditu ile artean.

Simona pozik bizi da adiskide lumadunak buruan dituela, baina ingurukoek ez dute berdin bizi. Gurasoek ezin dute eraman, hainbeste kantu buru nahasle, hain-

beste luma-zirin nonahi. Hartara, bide gogoretik jotzea erabaki, eta ornitologo bat ekartzen dute, neskatoaren burua txoriz garbitzeko. Simonak ez du batere ongi hartzen buru garbitze hori eta, txoriek airean hartuta, ihes egiten du leihotik barrena. Itzultzean gurasoek gozo hartzen dute, eta irtenbide asegarri bat hitzartzen.

Ilustrazioek kontakizunaren tonua ezartzen laguntzen dute, eta hainbat pasarte azpimarratzeaz arduratzen dira.



'Txoriburu'

Idazlea: Alicia Escribano. **Ilustratzailea:** Patricia De Blas. **Itzultzailea:** Amaia Apalauza Olo. **Argitaletxea:** Denon artean.